



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 14a

131. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusutzen baitu Senatuak ituna bermatu nahi izatea ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeei. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

F S A I L A:

Galderak:

—Galdera, AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafikoa-areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, osasun arloko eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, 8/2013 eta 17/2010 foru legeen aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunetan beteta egonen ez diren zenbait Departamentuetako kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

—Galdera, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman instituzionalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

—Galdera, Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

—Galdera, sektore soziosanitarioko langileak gaitasun profesionalak egiaztatzekeo prozesuan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko baitu Senatuak ituna bermatu nahi izatea ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko du Senatuak, Hezkuntza-kalitatea hobetzeko Lege Organikoaren proiektua izapidetzean, kosta ahala kosta hezkuntza-ituna bermatu nahi izatea ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxei, eta proiektua erretira dezan premiatzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du indarrean dagoela 17/2012 Foru Legea, zeinaren arabera ezin izanen baita itunik egin ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeekin; hartara, hezkidetzaren eta ez diskriminatzearen printzipioa gailendu behar da Nafarroako hezkuntza-sisteman.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafiko-areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafiko-areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 20ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafiko-areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruz (PES-129). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak eta Autopistas de Navarra, S.A.k 2008ko martxoaren 14an hitzarmena sinatu zuten AP-15 txartela edo OBE VIA-T gailua duten ibilgailu arinetako erabiltzaileei ohiko erabileragatiko deskontu berriak aplikatzeko. Hitzarmen horretako bigarren klausulako 2. idatzatiak hauxe ezartzen du: "ez dira hitzarmenean sartzen deskontu berrien aplikazioa dela eta trafiko-areagotuko balizko autobidea ustiatzeko kostuetan sor litezkeen ondorio ekonomikoa...". Aurreikusten da ondorio horiek aztertzeko batzorde tekniko bat eratuko dela eta 15 hilabeteko epean aztertuko duela portaera horien bilakaera.

Deskontu politika berriak ustez eragin zezakeen trafiko-gehikuntza izan zen txosten hori egiteko akordioaren oinarritzeko premisa. Nafarroako Gobernuaren eta Audenasaren arteko atariko harremanetan egiaztatu zenez, ordea, premisa hori, hartatik sor zitezkeen eragin ekonomikoaren azterketa justifikatzen zuena, ez da bete, eta beraz ez da inolako txostenik egin aurretiazko lan horien ildotik. Azken urteotan izan dugun egoera ekonomikoa dela eta, autobideko trafikoa ez da areagotu, aitzitik, urritu egin da, galderan aipatutako Kontuen Ganberaren fiskalizazio-txostenean jasorik gelditu den bezala.

Urtea	Iragateak, guztira	Indizea	Ibilgailu arinak	Ibilgailu astunak	Beharpenak dituzten ibilgailuak, guztira	Beharpenak dituzten ibilgailuen guztizkoan egiten duten ehunekoa
2003	18.743.248	100	14.524.396	4.218.852	13.087.040	70
2004	19.890.676	106	15.431.404	4.459.272	13.742.154	69
2005	20.833.823	111	16.123.233	4.710.590	14.510.061	70
2006	21.565.154	115	16.740.039	4.825.115	14.844.685	69
2007	22.153.574	118	17.219.633	4.933.941	15.267.858	69
2008	22.284.283	119	17.585.815	4.698.468	14.297.212	64
2009	21.317.322	114	17.235.517	4.081.805	13.368.638	63
2010	21.001.482	112	16.968.602	4.032.880	13.161.514	63
2011	20.639.633	110	16.580.026	4.059.607	13.005.106	63
2012	18.699.067	100	15.052.410	3.646.657	11.515.414	62

Iturria: Kontuen Ganbera. Audenasaren merkataritza politikari buruzko fiskalizazio-txostena (2003-2012)

Goiko taulan ikus daitekeenez, 2008tik 2010era bitartean %3,5 jaitsi da ibilgailu arinen iragateen kopurua, eta horrelako ibilgailuak dira deskontu berrien onuradunak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 17an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, osasun arloko eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin-dako galderaren erantzuna, osasun arloko eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, Foru Diputazioari emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 11ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatean osasun arloan pertsonak dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko

17/2010 Foru Legeari buruz (PES-00149). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1. Zure departamentuaren ustez, ez da inolako erregelamendurik behar lege hori betetzeko? Funtsen, lege mailako arauak betetzeko, haietan kontrarik adierazi ezean, ez dago erregelamendu bidez garatu beharrik.

2. Zergatik ez da aplikatzen legea? Osasun Departamentuak bere osoan aplikatu izan du eta aplikatzen du azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean osasun arloan pertsonak dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, 8/2013 eta 17/2010 foru legeen aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak 8/2013 eta 17/2010 foru legeen aplikazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 11ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatean osasun arloan pertsonak dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeaz eta Nafarroan bizi diren pertsonen Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen dien otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legeaz (PES-00150). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1. Zuen ustez, otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legeak jorratzen duen arloan Nafarroak dituen eskumenak betetzen al ditu lege horrek?

Osasun Departamentuak eta Nafarroako Gobernuak hainbat aldiz adierazi dute, are gaia arautuz, Nafarroaren eskumena dela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere kargura osasun laguntza publikoaren unibertsalizazioa hedatzea.

Horren harira gogora ekarri nahi dizut Nafarroak 1991z geroztik dituen arauak osasun estaldura publikoa eman dietela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, Osasun Sistema Nazionaletik baztertutako pertsona guztiei.

Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak indarra hartu zuenean aldatu egin ziren, beste gauza batzuen artean, Osasun Sistema Nazionalera dohainik eta modu unibertsalean jo zezaketen pertsonak. Nafarroako Gobernuak, ustez bereak dituen eskumenak erabiliz, 640/1996 Foru Dekretua aldatzen duen urriaren 31ko 117/2012 Foru

Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez ahalegina egin baitzen ordura arte izandako osasun estaldura unibertsala eta osoa ematen jarraitzeko zenbait baldintza betetzen zituzten eta Osasun Sistema Nazionaletik kanpo zeuden pertsonen, eta, halaber, Gizarte Politiketako Departamentuaren bidez diru-laguntzen araubide bat sortu baitzen, Osasun Sistema Nazionaletik kanpo zeuden baliabiderik gabeko pertsona guztiek (etorkin irregularrak) estaldura osoa eta doakoa izan zezaten.

Dakizunez, Estatuko Gobernuak Nafarroako Gobernuaren araudiaren aurkako errekurtsoa jarri zuen Konstituzio Auzitegian. Prozesu judizialean Nafarroako Gobernuak defendatu egin zuen Nafarroak arlo horretan duen eskumena.

Gero Nafarroako Parlamentuak goian aipatu den 8/2013 Foru Legea onetsi zuen. Estatuko Administrazio Orokorrek zalantza jarri zuen arau horren konstituzionaltasuna eta Lankidetzaren Batzordearen deialdia eskatu zuen, batez ere eskumenen inguruan sortutako desadostasunak ebazten saiatzeko. Behinola Nafarroako Parlamentuari jakinarazi zitzaion bezala, Lankidetzaren Batzordearen aurretik eratu zen lantalde tekniko batean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak Estatuko Administrazio Orokorreko adierazi zieten beren iritziz 8/2013 Foru Legea Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen barruan eman zela eta horrenbestez ez zela aldatuko gaiari buruzko jarrera.

Beraz, Osasun Sistema Nazionaletik kanpo gelditu direnei ere Nafarroak bere baliabideekin osasun estaldura emateari dagokionez, uste dugu 8/2013 Foru Legea gure eskumeneko eremuaren barruan onetsi dela.

2. Baietzkoan, zergatik prestatu dute Gizarte Politiketako Departamentuaren Nazioarteko Lankidetzaren funtsen bidezko diru-laguntza araubide bat –baliabiderik gabeko pertsonentzat Nafarroan osasun-laguntza publikoa unibertsalizazioaren araubidearen ehuneko ehun finantzatzen zuena–? Zergatik ez dituzte zuzenean aplikatu jada onetsitako legeak, esaterako eskubideei eta betebeharrak buruzko 17/2010 Foru Legea, non esplizituki esaten baita osasun-laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen dituela, zein ere den haien lege egoera?

Galdera horri erantzuteko, Nafarroako Foru Komunitatean osasun laguntza publikoaren

unibertsalizazioa arautzen duen foru araudira jo behar da.

Otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretua eman zenean, lehenbiziko aldiz foru arau batek osasun laguntza publikoa hedatu zuen osasun babes publikorik edo titulu juridikoren baten bitartez hura jasotzeko aukerarik ez zuten pertsona guztiengana. Baina, foru dekretuaren azken xedapenetatik lehenaren arabera, hedapen hori pixkanaka egin behar zen.

71/1991 Foru Dekretuari gaina hartu zion azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean osasun laguntza publikoa ororenganatzeko araubideko prestazioen prozedura eta baldintzak ezartzen dituenak. Foru dekretu horrek helburu nagusia zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak osasun laguntzaren prestazio publikoa hedatzea Osasun Sistema Nazionaletik baztertutako guztiengana. Hasieratik, ordea, hedapen horretarako hiru baldintza bete behar ziren:

1. Gizarte Segurantzaren nahiz osasun arloko aurreikuspen publikoko beste sistemaren batean kotizatzea legez behartuta ez egotea, edo zeinahi titulu juridikoren bitartez osasun babes publikoko beste sistema batean sartzeko aukerarik ez izatea, eta osasun laguntzako araubide publiko baten onuraduna ez izatea. Baldintza horrekin adierazi nahi zen, funtsean, Osasun Sistema Nazionalen sarrerarik ez zuten pertsonentzat bakarrik izanen zela "Nafarroako Foru Komunitatean Osasun Laguntza Publikoa Ororenganatzeko araubide" hori.

2. Araubidera biltzeko eskaera aurkezten zenean Nafarroan bizitokia izatea urtebete lehengotik, gutxienez.

3. Urtero ekarpen ekonomikoa ordaintzea.

Osasun Sistema Nazionaletik kanpo dauden pertsonak Nafarroan foru dekretu hori baliatu dute 1996tik hasi eta 2013an 8/2013 Foru Legeak hura indargabetu duen arte.

17/2010 Foru Legeak, nahiz eta xedapen indargabetzaile bakarrean berariaz indargabetu zituen bi foru lege eta beste baten zati bat, ez zuen berariaz indargabetu 640/1996 Foru Dekretua; eta osasun laguntza publiko eta unibertsalaren estaldura Nafarroan bizi diren guztiengana hedatu bazuen ere, ez zuen jaso ez haren doakotasunik ez epeak jarriz bizitokiaren baldintza arautu ahal izateko trabarik. Baina foru lege horrek ezarri zuen, bai, osasun laguntza publikoak unibertsala izan behar duela, hau da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen dituen

osasun zerbitzu guztiak bildu behar dituela. 17/2010 Foru Legearen helburua izan balitz osasun laguntza publiko eta unibertsala Nafarroako udalerrietan bizi diren guztientzat doakoa izatea, doakotasun horrek barruan hartu beharko zituzkeen Osasun Sistema Nazionaletik kanpoko pertsona guztiak, tartean MUFACE, MUGEJU eta ISFAS bezalako kolektiboak eta profesional liberalen nahitaezko elkargoetako mutualistak. Hori nahi al zuen foru legeak? 17/2010 Foru Legeak ezarri omen duen doakotasuna, parlamentu-talde jakin batzuek zergatik aldarrikatzen dute etorkin irregularrentzat soilik? Ez zen hedapenaren zentzuerainokoa zehaztu 17/2010 Foru Legean. Hala ere, Nafarroan bizi diren GUZTIAK doako osasun laguntzan sartu balira, horrek eragin ekonomiko handia izanen zukeen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta, horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontuetan. Hori dela eta, gogora ekarri behar da, besteak beste, Galiziako Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren martxoaren 27ko 361/2002 Epaia. Bertan adierazten denez, Osasunari buruzko Lege Orokorrak ezartzen du, osasun prestazio unibertsala eratuz, osasun laguntza publikoak Espainiako biztanle guztientzat izanen dela eta osasun prestazioak egiazko berdintasun baldintzetan jasoko direla, baina horrek ez du esan nahi osasun laguntza hori doakoa denik, litekeena baita hirugarren bat hura ordaintzera behartua izatea.

Osasun Departamentuak, 2010eko azaroaren 16an 17/2010 Foru Legea indarrean jarri zen arren, ulertu zuen lege horrek ez ziela eragiten lehen aipatutako 640/1996 Foru Dekretuan ezarritako baldintzei eta prozedurari, eta beraz horiek zuzenbidezkoak zirela. Horregatik, 2010eko azaroaren 16tik aurrera ere jarraitu du eskaerak jasotzen 640/1996 Foru Dekretuan araututako moduan "Nafarroako Osasun Laguntza Publikoa Ororenganatzeko Araubidera" biltzeko, eta ez dute horren indarra eta beharra zalantzan jarri ez ukitutako herritarrek, ez parlamentu-taldeek, ez gainerako entitateek. Alegia, inoiz ez da planteatu 17/2010 Foru Legeak tazituki 640/1996 Foru Dekretua indargabetzen duenik.

2012an indarra hartu zuen apirilaren 26ko 16/2012 Errege Dekretu Legeak, eta Osasun Sistema Nazionaletik kanpoko pertsonen dagokien aldaketa egin zuen, besteak beste. Kolektibo batzuk lehen Osasun Sistema Nazionaletik kanpo zeuden eta orain barruan daude, eta beste batzuk, aldiz (nagusiki eta soilik, etorkin irregularrak), lehen Osasun Sistema Nazionalen zeuden eta orain neurri batean baztertu dira. Aldaketa garrantzitsu horren ondorioz Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentuak hala eskaturik, Gizarte

Politiketako Departamentuarekin lankidetzan, erabaki zuen Nafarroako Osasun Laguntza Publikoa Ororenganatzeko Araubidea aldatzea egoera berrira egokitzeko, eta laguntzak ezartzea, araubide horretara bildu behar ziren baina baliabide ekonomikorik ez zuten pertsoneri (nagusiki eta soilik, etorkin irregularrak) beren ekarpenaren % 100 finantzatzeko eta hartara Nafarroan osasun laguntza publiko unibertsalari eusteko, pertsona horiei kalterik egin gabe. Gainera, Nafarroan urtebetez bizi izatearen baldintza etorkin irregularrentzat leundu egin zen eta baldintza hori betetzen ez zuten pertsonen sarrera onartu zen. Gogorarazi behar da jokabide hori Estatuko araudian ezarritako ildotik irteten dela.

Hala ere, gaur egun zenbait entitate edo parlamentu-talde ezbaian jartzen ari dira aipatutako arauen (640/1996 Foru Dekretua eta hura aldatzen duen 117/2012 Foru Dekretua) indarra eta legezketasuna. Adierazten edo baieztatzen da, baita idatziz ere, 17/2010 Foru Legeak osasun laguntza publiko unibertsala ematen diela etorkin irregularrak guztiei. Interpretazio horrek zenbait zalantza sortzen ditu, goian esan bezala. Zergatik ez da lehenago planteatu unibertsalizazio araua ez zela aplikatu behar? Zergatik laguntza etorkin irregularrangana bakarrik hedatu? Zer gertatzen da Osasun Sistema Nazionaletik kanpo dauden Nafarroako herritar erregularrak? Ez al dagokie horiei ere 17/2010 Foru Legeak ezartzen omen duen doakotasuna?

640/1996 Foru Dekretuaren indarra eta urriaren 31ko 117/2012 Foru Dekretuaren legezketasuna eta antolamendu juridikoarekiko lotura direla eta, gogora ekarri behar da bigarrenaren proiektua, lehenbizikoa aldatu zuena, Nafarroako Kontseiluari igorri zitzaiona aginduzko irizpena eman zezan. Kontseiluko kideek aho batez onetsi zuten irizpena; 7 kideok ospe eta esperientzia handiko legelariak dira, independenteak eta mugiezinak, eta irizpenean ondorio gisa adierazi zuten 640/1996 Foru Dekretua aldatzeko proposamena bat zetorrela antolamendu juridikoarekin. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen 1. artikulua dioenez, Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da eta bere eginkizunetan Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Erauzte Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta antolamendu juridikoko gainerako arauak bete daitezzen arduratzen da. Beraz, Nafarroako

Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorenak, antolamendu juridikoa bete dadin begiratu duenak, proposatutako aldatzearen egokitasuna deklaratu zuen eta, a sensu contrario, ez zuen esan 17/2010 Foru Legeak ezartutako 640/1996 Foru Legea indargabetzen duenik; bi arauen adostasuna eta bateragarritasuna onartu zituen.

Azkenik, esan beharra dago Nafarroan bizi diren pertsoneri Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen dien otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legeak argi eta zehatz azaltzen dituela Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere kargura ematen duen osasun laguntzarako baldintzak:

– Doakotasuna (artikulu bakarra, 1. idatz-zatia): 640/1996 Foru Dekretuak egin zuen bezala erregelamenduzko arauen batek ekarpena ezar dezan eragozten du.

– Bizilekua: eskaera aurkezten den unean norberaren bizilekua Nafarroan dagoela frogatzea, denbora mugarik gabe (artikulu bakarra, 2. puntua). Baldintza argia da eta ezin da interpretatu edo garatu.

– Kanpoan uztea -ezinbestekoa zenez, gure iritziz- Estatuko funtzionario zibilen mutualitateek, Mutualitate Orokor Judizialak edo Indar Armatuen Gizarte Institutuak kudeatutako Gizarte Segurantzaren araubide berezietako titularren edo onuradunen osasun laguntzaren araubidea. Pertsona horiek beraien berariazko araubide juridikoa mantenduko dute, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 3.6 artikulua erekin bat. Kolektibo horiek badute osasuna babesteko beren araubidea.

Azken batean, uste dugu Osasun Departamentuak eta Nafarroako Gobernuak une oro bete dituztela osasun arloko arauak.

3. Zuen ustez, 17/2010 Foru Legeak Nafarroaren eskumenak betetzen al ditu?

Lehen galderaren erantzunean jada adierazita koaren ildotik, uste dugu baietz, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenean barruan dagoela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren zenbait Departamentuetako kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren zenbait Departamentuetako kontusailei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko hainbat galdera egin ditu Nafarroako Gobernuko departamentuetan 2013ko abenduaren 31rako ehuneko ehunean beteko ez

diren kontusailei buruz (8-13/PES-157, PES-158, PES-159, PES-160, PES-161, PES-162, PES-163 eta PES-164). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Une honetan ezin da jakin 2013rako luzatu den 2012ko gastu aurrekontuko zein kontusail ez diren erabat beteko, 2013ko ekitaldiko aurrekontua ixteko eragiketa guztiak burutu arte ez direlako eza-gutuko aurrekontu-betetzeari buruzko behin betiko datuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urrian

Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariordea: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak idatziz erantzuteko galdera egin du UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruz (PES-135). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Erantzuna erantsi da Excel formatuko dokumentu batean. Bertan zerrendatuta daude 2013an abian jarritako neurriak, hau da, neurri guztien % 70.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

ENPLEGUAREN MAHAIAREN NEURRIAK. UPN-PSN AKORDIOA

2013an abian jarritako neurriak

ERABILGARRI DAGOEN AURREKONTU-KONTU-BETETZEAREN PORTZEN HELBURUAK ETA BETETZEAREN AURREIKUSPENA

1 EKINTZAILETZA SENIORRA BABESTEIA. 4/2013 Errege Lege Dekretuaren bidez 30 urtez beharagoentzat onetsitako neurriak 50 urtez gorakoengana hedatzea

Estaluko legediko neurri hauek aplikatu daitezke Nafarroan: 1) Profesionaltasun ziurtagiriak eskuratzeko prestakuntza-programak eta kontratatzeke konpromisodun prestakuntza-programak zabaltzea. 2) Pizgarriak garatzea, ikasketak goz utzi zituzten langabeek DBH titulua lortu ahal dezaten. 3) Ekintzale gazteentzako finantzaketa sistemak hobetzea. 4) Ekintzailerei aholku eta laguntza emateko erreferentziako bulegoak sortzea. 5) Pizgarriak ematea gizarte ekonomiko gazte enpresetan bazkide langile gehiago sar ditzaten

100%

NEZ

2 PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN SEKTOREAN ENPLEGUA

"AZALERATZEKO" NEURRIEN PROGRAMA. Legegintzako neurriak, zerbitzu horien eskaria areagotzeko pizgarriak legez emateko.

3 GIZARTE ENPLEGUGO PROGRAMA, UDALEKIN LANKIDETZAN

Lanaren ZN eta NEZ

Gizarte Enplegu Babestuaren deialdiak: guztien intereseko eta irabazi-asmorik gabeko proiektuak egitea, toki entitateek sustatuak, gizartetik baztertutako pertsonak aldi baterako kontratatzeke bidea ematen dutenak. Zuzeneko Enplegu Aktiboaren deialdiak: gizarteratze errenta edo gizarteratzeke eta laneratzeke eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza jasotzen duten pertsonak lanera daitezten sustatzea. Jada neurri guztiak gauzatu dira

Gizarte Politika eta NEZ

Egun, negoziarioak egiten ari dira, eta oso aurreratuak diren aurrekontu-betetzeaz aurreratu daude, Funtzio Publikoaren Mahai Nagusian

Funtzio Publikoaren ZN

Gizarte Enplegu Babestuaren 2013ko deialdiak: 2.194.880. Zuzeneko Enplegu Aktiboaren 2013ko deialdiak: 2.949.513. NEZetik datozen funtsak: 3.800.000 €

100%

Ez in da aurrekontu-kosturik 2013an mintzatu

4 LANA BANATZEA ADMINISTRAZIOAN. Proposamenak aurkeztea Funtzio Publikoaren Mahai Nagusian eztabaidatu eta negoziatzeko, lanaldi partzialako

<p>5 EURES SAREAREN (Europako esparruko enplegu zerbitzu publikoak) FUNZIONAMENDUA INDAITZEA bere esparruan nahiz beste eremu geografiko batzuetan, langabeek beste herrialde batzuetako aukerak helarazteko</p>	<p>45.000 € (2013).</p>	<p>100%</p>	<p>Gaur egun EURES sarearen funzionamendua indartzen ari da; Europan lana bilatzeko orientabide eta aholkuak ematen dira eta Europako enplegu eskaintzen berri hedatu eta izapideak egiten dira</p>	<p>NEZ</p>
<p>6 LH DUALA. Lanbide Heziketa duala sustatzea eta Alemaniako ereduaren aplikatzea</p>	<p>Ez zaie ordaintzen enpresei, eta ez dira handitzen ez kostuak ez Ezin da irakasleen zanak.</p>	<p>mintzatu</p>	<p>Saiakuntza gisa 2013-14 ikasturtean Lanbide Heziketako 17 eskaintzatan ezarri da (HLKPeitan eta Heziketa zirkuluetan), eta Nafarroako 150 enpresa baino gehiago ari dira parte hartzen.</p>	<p>Hezkuntza</p>
<p>7 PRESTAKUNTZA ENPRESETAN. Enpresek eskaeraren araberako prestakuntzaren sistema ahalik eta gehien erabiltzeko sustatzea</p>	<p>500.000 € (2013) Nazioartekoze Plana, deialdiak enpresen elkarlanerako laguntzak, 250.000, enpresen kampa sustapena: 200.000, Talentu Bankua, 5.000 € (2013)</p>	<p>100%</p>	<p>Diru-laguntzarako bi deialdi onetsi dira; kontratatutako konpromisodun prestakuntzarena, langabeak kontratatutako asmatan trebatzen dituzten enpresak finantzatzen dituen trebatutako pertsonetatik guztien % 50 kontratatu behar dituzte; eta ETEntzako prestakuntzarena, zeinaren bidez enpresei finantzatzen baitzaie lehian esparru berrietarako egokitzapen teknologikoa eta/edo metodologikoa xede duen prestakuntza</p>	<p>NEZ</p>
<p>8 ELKARLANEKO ENPRESA-EKIMENAK (bat-egiteak, xurgapenak, merkaturatze- edo nazioarteko-plan baterakoak, erosketaz- zentraliak...) SUSTATZEKO ETA LAGUNTZEKO PROGRAMA</p>	<p>Heiburruak: 10 kontratu lortzea, erregistratutako 60etatik. Betetzearen aurreikuspena: 2013/12/30erako</p>	<p>50%</p>	<p>Ekonomia:</p>	<p>Ekonomia:</p>
<p>9 SEKTORE EOLIKOko INSTALAZIOAK BERRITZEA: instalazio berriei Oiko kanon elektrikoa ezartzeko; instalazio berrien "balantze garbierakiko energia auto-konsumoa" arautzeko eta ebakuzio-lehenetasunak berresleitzeko arauak egon litezkeen aztertzea</p>	<p>Ez du aurrekonturik. Aurreikusitako zerga-salbuetspenak aplikatu ahal balira, une honetan ezin da kalkulari horien guztizko zenbatekoa</p>	<p></p>	<p>Helburuak: sektore eoliko instalazioak berritzea sustatzea, salbuetspenak ezarri. Betetzearen aurreikuspena: ezezaguna eta zalantzarikoa, salbuetspen horien aurka Konstituzio Auztegiari jarri den errekurtsoa ebazti arte.</p>	<p>Industria ZN</p>
<p>10 BASOEN KONTSERBAZIOA ETA LANDA-BIDE ETA BASO-PISTEN KONPONKETA (leizarte enplegarerakin,</p>	<p>2.919.350 (2013)</p>	<p>2.241.365</p>	<p>Landa garapena</p>	<p>Landa garapena</p>
<p>11 IBAIAK, UR BAZTERRAK ETA NATURGUNEAK GARBITZEKO PLANA (leizarte enplegarerakin, lehentasunez)</p>	<p>501.000 (2013)</p>	<p>47.496</p>	<p>Landa garapena</p>	<p>Landa garapena</p>

<p>12 KOOPERATIBEN INTEGRAZIOARAKO 4 URTERAKO PLAN BERRIA, ehiatzeko behar adina ko tamaina eta bidaragarritasuna ahalbidetuko dituen. Kooperatiben arteko bat egite eta akordioetarako pizgarriak ematea.</p>	<p>200.000 (2013)</p>	<p>Lantaldean fasean dago Nafarroako Kooperatiben Integratzaile II. Plana</p>	<p>Landa garapena</p>
<p>13 NAFARROAKO UBIDEA. Ubideko obrerarako inbertsioen garapen iraunkorra; lehen faseko lurzatiak "janztea" berehala ureztatzen hasteko, eta ureztaketara ekipamenduetarako laguntzak ematea</p>	<p>15.495.157 (2013)</p>	<p>Orain arte betetakoak, 2013an laguntzak emateko proposamenak prestatzen ari xedatutako 12.854.341,39</p>	<p>Laguntza-eskaerak aurkezteko epea amaiturik, 2014ko lehen hiruhilekoan onestea aurreikusten da</p>
<p>14 NAFARROAKO PRODUKTUAK. Lehen sektorea indartzeko legeko mekanismoak abiatzea eta merkataritzarekiko zuzeneko kanalak sortzea Nafarroako produktuen kontsumoa eta merkaturatzea sustatzeko</p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Landa garapena</p>
<p>15 PRODUKTUEN ZUZENEKO SALMENTARI BURUZKO FORU LEGEA garatzea</p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Zuzeneko Salmentari buruzko Foru Legea garatzeko erregelamendua egiten ari da eta 2015eko lehen hiruhilekoan onestea aurreikusten da</p>	<p>Landa garapena</p>
<p>16 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO USTIATEGIAK MODERNIZATZEKO ETA NEKAZARI GAZTEAK BEREN GAIN HASTEKO LAGUNTZEN DEIALDIA</p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Zuzeneko Salmentari buruzko Foru Legea garatzeko erregelamendua egiten ari da eta 2015eko lehen hiruhilekoan onestea aurreikusten da</p>	<p>Landa garapena</p>
<p>17 ENERGIA BERRITAGARRIAK BULTZATZEKO PROGRAMA, zeinean jasoko baitira: sektoreko H+G+Bio lerro bat, Ekonomia Berdearen barruan, bai eta Nafarroan energia eolikoko eta bestelako iturri berriztagarrien kokalekuen planingintza sektorialerako tresna bat prestatu eta izanidatzea ere. <i>Tresna horren onestaketan sektoreko</i></p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Laguntza-eskaerak aurkezteko epea amaiturik, laguntzak emateko proposamenak prestatzen ari dira, eta 2015eko lehen seihiilekoan bukatuko direla aurreikusten da</p>	<p>Landa garapena</p>
<p>18 GIZARTE EKONOMIA BABESTEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN SORRERA SUSTATZEKO PROGRAMA</p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Deialdi bat onetsi da, gizarte ekonomiako enpresa baten sorrera helburu duten proiektu integralak edo gizarte ekonomiako enpresa berriak sortzeko proiektu pilotuak finantzatzeko dituen. Gizarte ekonomia babestu nahian, haiaber, inbertsioak, bazkideen sarrera, enpresaren ondorengotza edo laguntza teknikoak finantzatzeko diru-laguntzen deialdiak onetsi dira</p>	<p>Industria ZN NEZ</p>
<p>1.827.000 (2013)</p>	<p>100%</p>		

<p>19 EGUNGO SAREA SUSTATZEA ETA ELURRETAKO TURISMOA, HAZTEN ARI DIREN TURISMO MOTAK ETA ABARREKOAK INDARTZEA</p>	<p>Neurri hau gauzatzeko, Turismoako Marketin eta Garapenerako 2014ko Plan Operatiboa abiatu da, 2012-2015 aldirako Turismo Plan Integralean ezarritako estrategiaren emaitza gisa. Bertan hainbat ekintza jaso dira: turismoaren sustapena, turismoa helmugaren eta produktuen publizitatea, webgunea, turismoa eskarriak, turismoaren dinamizazioa, seinaleak, turismoa produktuen sorrera, turismoa informazioa eta abar. Neur daitezkeen helburuak: turista eta txangozaleen kopurua handitzea eta okupazioaren nahiz emandako gauen indizeak mantendu eta</p>	<p>1.972.150 € (2013)</p>	<p>% 95 baino gehiago</p>	<p>Turismo ZN</p>
<p>20 NAFARROAKO EKONOMIA NAZIOARTEKOTZEKO PROGRAMA. Esportazio jarduera sustatzea</p>	<p>Helburuak: esportazioen zenbatekoa 7.016 milioi eurotik 8.500 milioi eurora igotzea 2015ean, eta esportatu ohi duten enpresen kopurua 708tik 850era igotzea. Betetzearen aurreikuspena: 2016-ako</p>	<p>NENP: 725.000 € (2013)</p>	<p>20%</p>	<p>Ekonomia ZN</p>
<p>21 NAFARROAKO ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEKO ESTRATEGIA BERRIA. Kanpoan aritzeko enpresen arteko partzeurrosak, lankidetzak eta elkarlagintza sustatzea</p>	<p>Helburuak: 15 enpresa-elkarte sortzea. Betetzearen aurreikuspena: 2013/12/30erako</p>	<p>Elkartuen deialdia: 250.000 (2013) aurrerakinaren % 25 eman da</p>	<p></p>	<p>Ekonomia ZN</p>
<p>22 NAZIOARTEKOTZE AZKARREKO ENPRESEI BERRIAZKO LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMA. Etapa guztietarako laguntza, aholkularitza, prestakuntza, kanpoan bazkideak bilatzea etab.</p>	<p>Helburuak: neurri honen bidez Nafarroako Ekonomia Nazioartekotzeko Programaren helburuak lortzen laguntzea. Betetzearen aurreikuspena: 2013/12/30erako</p>	<p>Aholkularitza espezializatuaren deialdia: 200.000 (2013)</p>	<p>Oraindik ez da bete aurrekontua</p>	<p>Ekonomia ZN</p>
<p>23 ENPRESA SAREAK SUSTATZEKO PROGRAMA. Nafarroako enpresen tamaina bikiarekin lotuta dago arazoak gainditzeko laguntzeko (partzeurrosak, klusterrak, lankidetzak eta</p>	<p>34. neurriarekin lotuta dago Nafarroako Ekonomia Nazioartekotzeko Programaren</p>	<p>biologia, webgunea eta sare sozialak, eta zerbitzuen katalogoa: 22.400 (2013)</p>	<p>83%</p>	<p>Ekonomia ZN</p>
<p>24 AUKEREN ATARIA. Esportazioarako eta nazioartekotzeko aukeren atari bat sortzea</p>	<p>Helburuak: neurri honen bidez Nafarroako Ekonomia Nazioartekotzeko Programaren helburuak lortzen laguntzea</p>	<p></p>	<p></p>	<p>Ekonomia ZN</p>

<p>25 BUSINESS ANGELEN FORU SAREA. Foru sare bat garatzea Estatuako eta Europako sareen baitan, inbertsio gileen eta ekintzaileen arteko harremanak sustatuko dituena, proiektuak finantzatzeko</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Helburua: enpresa ekimen berrietarako kapitala lortzea, batetik, eta inbertsio gileek eskain ditzaketen esperientzia, jakintza eta kontaktuak, bestetik. Hartara enpresak sortu eta sendotzeko bidea emanez da eta enpresen arteko lankidetzaz sustatuko da</p> <p>Ekonomia ZN</p>
<p>26 ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK HANDITzea. Sozietate publikoaren aktibo eta ondasunak edo Administrazioaren partaidetza duten sozietateenak salitzea, Administrazioak ekonomia biziberritzeko neurrietarako dirua izan dezan</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Helburuak: sozietate publikoaren aktiboak eta ondasunak salitzea, Administrazioak ekonomia biziberritzeko neurrietarako dirua izan dezan</p> <p>Nasuvinsa, Open Sodena+HMC</p>
<p>27 INBERTSIO FUNTSAK ERAKARTzea. SODENAren jarduerak nazioarteko inbertsio funtsen erakartzea, industria proiektu berrietara eta haialkoetara bideratzea eta arlo horiek indartzea.</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Sodena jada industria proiektu berriak erakartzen ari da. Inbertsio funtsak erakartzeari dagokionez, haletako zenbaitekin harremanak egiten ari dira nazioarteko hainbat ekitaldian (Energia).</p>
<p>28 FINANTZA-INBERTSIO BERRIETARAKO TRATAMENDU FISKALA HOBETzea, enpresak sustatzeko sozietateei eta arrisku-kapitaleko sozietateei jatorrian aplikatzen zaien kerkaria handituta.</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Aztertzen ari da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean sartzeko, 2014rako Zerga Neurriei buruzko Foru Lege Proiektuaren bitartez</p> <p>Nafarroako Zerga Ogasuna</p>
<p>29 INBERTSIO FUNTSAK KUDEATZEN DITUZEN SOZIETATEEN ZERGA-ZAMA ARINTzea</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Inbertsio funtsak kudeatzen dituzten sozietateei ez zaie % 1eko tasa murriztua aplikatzen ondasun higigarrien eta higiezin merkatuan dinalduten bestelako sozietateei bezala. Neurri honen eragina baloratuko, Nafarroako Zerga Agentziak bere datu-baseetan begiratu du, eta ondorioztatu du inbertsio funtsak kudeatzen dituen sozietate bakar bat ere ez dagoela zergapetuta Nafarroako araudiari jarraituz. Beraz, proposatutako neurriak ez luke eragin praktikorik izanen</p> <p>Nafarroako Zerga Ogasuna</p>

<p>30 ENPRESEN LIKIDEZIA SUSTATZEA BEZAREN AURRERAKINAREN BIDEZ. Abalen sistema, enpresen finantza-entitateetan deskontatutako ahal izan dituzten BEZaren itzulketaren zenbatekoak</p>	<p>Neurri hau lehendik ere badago Nafarroako Foru Komunitatean, baina hemen ez da abalen sistema erabiltzen, alzitik, zergadunak kobrantzaren lagapenaren bidez eskatutako itzulketak bera da finantza-erakundeari ematen zaion bermea. 2011ko azaroaren 19an 8 hitzarmen sinatu ziren Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren eta beste hainbeste finantza-entitatearen artean, edozein zergaren (BEZA, PFEZA, SZ...) itzulketen zenbatekoa aurretratzeko eta, trukean, banku edo kubari lagatzeko zenbateko hori Zerga Administrazioari kobratzeko eskubidea. Dagoeneko 13 banku eta kubak sinatu dute hitzarmen hori, eta Nafarroako Zerga Ogasunak adierazi du ongi baloratutako prozedura dela eta zergadunek hura erabiltzen dutela likidetzia lortzeko</p>	<p>Ogasuna</p>	
<p>31 NAZIOARTEKOTZEKO PROZESUA FINANTZATZEA. Nafarroako enpresen lizitazioa eratzeko atzerrian, ICO, ICEX eta CESCEekin elkarlanean.</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	
<p>32 ENPRESA JARQUERETARAKO KREDITUA ETA FINANTZAKETA ERRAZTEA. SODENAREN jarduna indartzea eta finantzaketa publikorako eta/edo publiko-privatarako tresnak sortzea; enpresa jarduerak finantzatzea lehentasunezko helburua izan duten entitate pribatuen sorrera erraztea; abaliak ematea enpresa osaketuetarako eta enpresa bideraketa</p>	<p>65000 30 milioi euro daude eskuragarri enpresa ertainei (gehienez 3.000 langile) mailleak emateko.</p>	<p>30% BEK eta Sodenak maillearen aldaketa sinatu dute dagoeneko.</p>	<p>Helburua: Nafarroako 10 enpresa merkatu multilateralean sar daitezten lortzea; 5 hasiapenetan eta 5 jarraipenean. Noizko aurreikusten den burutzea: 2013/12/31 30 milioi euroak 2014ko ekitaldian zehar erabiltzea.</p>
<p>33 BEIEN FINANTZAKETA. Nafarroako enpresen BEIren finantzaketa erabil dezaten sustatzea</p>	<p>Ekitaldi honetarako 85 milioi euroko aurrekontua dago eskuragarri. Baliatu gabeko zenbatekoa hurrengo ekitaldietan baliatu ahal izanen da.</p>	<p>Galderari erantzuten zaion egunean % 20 dago beteta.</p>	<p>Sodena</p>
<p>34 ADMINISTRAZIOA ERRAZTEA. Aurreitako baimenak geroko kontrol bialkatze; enpresa eta negozioen titulartasuna aldatzeko betekizun administratiiboak erraztea; enpresak sortzeko leihatila bakarrak; Administrazioaren informazio eta koordinazio sistemak hobetzea. Nafarroako enpresen sorrerari eta lardueraz</p>	<p>Ez du aurrekonturik</p>	<p>Ezin da aurrekontu-betetzear mintzatu</p>	<p>Lehendakaritza eta Justizia ZN</p>

<p>35 ATZERIKO INBERTISIO EMANKORRA ERAKARTZEA ETA NAFARROAN ATXIKITZEA. Atzerriko inbertsio zuzenerako Estrategia ezartzeko azterketa. Zerga-neurriak ezartzea</p>	<p>540.000 € (2013)</p>	<p>101.270 €. Batetik zenbait ekintza geroratu edo kendu egin direlaiko, eta bestetik negoziatu eta prezio txikiagoak lortu direlaiko</p>	<p>Helburuak: oraingo erakartzen-estrategia aztertzea. Atxikipenerako after care programa egitea. Erakartzen: proiektu bat. Atxikipena (Nafarroan kokatutako enpresen bisitak egitea): 40 bisita + txosten bat. Atxikipena: egindako 42 bisitak + egindako txostena</p>	<p>Sodena, HMC, Ekonomia ZN</p>
<p>36 LHren EREDU DUALAREN aldeko apustua.</p>	<p>Ez da aldaketarik espero ez kostuetan ez antolatetan</p>	<p>Ez da bidetako</p>	<p>Lanbide Heziketako Zerbitzuak LH dualaren aldeko Hezikuntza zabalikunde eta kontzientziazio lanean jarraituko du enpresetan eta LHko ikasketetan. Ahalik eta produktzio- eta zerbitzu-sektore gehienetan dualaren eskaintza pikkanaka handitzea lortu nahi du.</p>	<p>Hezikuntza</p>
<p>37 GIZA BALIABIDEAK jartzea atzerriko enpresak eta inbertsioak bidu eta Foru Komunitatera erakartzeko</p>	<p>130.000 € 105.000 € HMC kontratatzekeo + 202.000 € foro garrantzitsuetara joateko</p>	<p>82.005 € HMCri ordaindutakoa: 6.200 € zati: frinkoa. Azoketara joatearen kostua: 3.175 €</p>	<p>Sodena jada industria proiektu berriak erakartzen ari da. Inbertsio funtsak erakartzeari dagokionez, haletako zenbatekin harremanak egiten ari dira nazioarteko hainbat ekitalditan (Energia). Sodena Kanpoko aholkularitza enpresa bat kontratatzea 2013an, beste jarduerara batzuen artean Sodenaiko lantaildearen hiru prospekzio-bidaia antolatuko dituen 2014rako, atzerriko inbertsioa erakartze aldera. Ez da Sodena enpresaren egiteko merkataritza jarduerak egitea. HMCren egitekoak 2014/18/31rako: 40 aukera identifikatzea; 30 bilera egitea, 4 bisita Nafarroara, eta inbertsio proiektu bat zehaztea</p>	<p>Sodena, HMC</p>
<p>39 "INPRIMAKETA FUNTZIONALA" sustatzea arte-grafikoen sektorean</p>	<p>261.677 € (2013). Cetena inprimaketa funtzionalaren arloan lanean segituko du, nahiz eta oraindik ez den jarduera horren aurrekonturik ezarri hurrengo urteetarako</p>	<p>100%</p>	<p>Jada beteta dago. Cetena Fundazioak gaikuntza teknikoko proiektu bat garatu du, "Apikazio berriak inprimaketa funtzionalan" izenekoa Industria ZN, Cetena Fundazioa</p>	<p>Industria ZN, Cetena Fundazioa</p>

<p>40 FISKALITATE SUSTATZAILEA. Abalen, diru-laguntzen, zerga-onuren eta enpresa jarduerarako beste laguntza batzuen esparriaren azterketa orokorra egitea, ekintzailatza eta enpleguaren iraupena eta sorrera sustatuko dituen fiskalitatea diseinatzeke.</p>		<p>Tributuaren arloari dagokionez, abenduaren 26ko 22/2012 Foru Legeak ekintzailatza kalifikatutako persona edo entitateentzako eta entitate horietan inbertitzen dutenentzako zerga-arauidea sortu zuen. Enplegua mantentzeko eta sortzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak 71. artikuluan 4.200 euroko kuota arautzen du; zenbatekoa handiagoa izan daiteke, kontratazioak mota jakin bateko langileei eragiten badie.</p>	<p>Nafarroako Zerga Ogasuna</p>
<p>41 KOSTURIK EZ JARDUERA BERRIAK ERATZEKO ETA ABIAN JARTZEKO GASTUETAN. Udal eta eskualde tasak kentzea aztertzea. Notariotzari eta dokumentazio tekniko eta hirigintza-koari dagozkien gastuak PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren kosturako osatzen dituztenak.</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Diru-laguntzen deialdia ebatzen fasean dago, 220 eskabide jaso dira</p>	<p>Ekonomia ZN</p>
<p>42 ZALITASUNAK DITUZTEN ENPRESEI LAGUNTZEKO NEURRIAK, enpleguaren iraupena bermatzeko. Sozietateen gaineko zerga, PFEZa eta abarrekoko geroratzeko aukera</p>	<p>50.000 € (2013)</p>	<p>2009. urtetik, Zergei buruzko Foru Lege Orokorraren bidez, zerga-zorrak geroratzeko eta zatikatzeko baldintzak aldatzen joan dira; arau horretan eta Diru-biketari buruzko Erregelamenduan eskatzen ziren betekizunak malgutu egin dira, zailtasunak dituzten zergadunek zorra geroratzu eta zatikatzu beren jardueran ekonomikoari eutsi ahal diezaizoten. 2013an indarra duten neurriak 2014rako luzatuko dira, fabardura bixi batzuk erantsita, Zerga Neurriei buruzko Foru Lege Proiektuaren bitartez</p>	<p>Nafarroako Zerga Ogasuna</p>
<p>43 ETEEN ETA AUTONOMIEN NEGIZIOEN BAT-EGITEA, XURGAPENA ETA EROSKETA SUSTATZEa, prozesu horiek bultzatzen dituzten zerga-neurriak direla medio</p>	<p>Ez du aurrekontu-kosturik</p>	<p>Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak horrelako prozesuak egitearen aldeko zerga-tratamendua ezartzen du bat-egite, zatieta, aktibo-ekarpen eta balore-trukeen araubide berezian. Araubide hori persona fisikoaren prozesu batzuei ere aplikatu ahal zaie, eta badira zerga-onurak ondare eskualdaketen eta egintza Juridiko dokumentatuen gaineko zergan ere</p>	<p>Nafarroako Zerga Ogasuna</p>

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruz (PES-140). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

1.- Iragarritako erreforma integralak ukituko dituen zergen zerrenda.

Hitzarmen Ekonomikoko xedapenei jarraituz Nafarroak arau ditzakeen zerga guztiak ukituko ditu zerga-erreformak.

2.- Horien definizioa.

Erreforma dela medio Nafarroako zerga-sistemak ekonomia biziberritzea eta enpresa berriak erakartzen eta kokatzen laguntzea lortu nahi da, Nafarroaren autogobernua baliatuz.

Proiektu garrantzitsua da eta horregatik erreforma berri honek adostasunik handiena bildu behar du; erkidego honetako eragile eta erakunde nagusiek erreforman parte hartu behar dute, eta haiekin adostu behar da.

Horregatik, zerga-sistema bidezkoagoa eta zuzenagoa taxutzen lagunduko duten ekarpenak biltzeko prozesua abiatuko da. Sistema horrek ekonomia bizkortu behar du eta Nafarroako herritar guztiak ahalik eta baldintza onenetan jarriko ditu; gutxienez ere, auzoko erkidegoen pare.

3.- Erreforma hori noiz ekarriko den Legebiltzarrera, Nafarroako Parlamentuak izapidetzeko.

2014ko uda baino lehen aurkeztuko da Legebiltzarrean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 22an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman instituzionalei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman instituzionalei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanei buruz (PES-00134). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak lehendakariak:

Lehendakari honek joan zen ekainaren 19an Parlamentuaren aurreko agerraldian adierazi zuen bezala, Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean bada elkarlana, funtzionatu egiten du, eta normaltasunik erabatekoenaren esparruan garatzen da.

Ekonomiaren eta zergen aldetik ukalezina da bi erkidegoek berezitasunak dituztela gainerako erkidego autonomoen aldean.

Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoak eta EAEko Itunak zeinek bere ezaugarriak dituzte eta desberdinak dira, baina badituzte antzekotasunak ere, eta horregatik beharrezkoa da bi administrazioen arteko aldi behingo lankidetzak: adibidez, Estatuko Administrazio Orokorrekin batera BEZaren eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien doikuntza fiskalen likidazioa egiteko hiru hilean behin.

Gainera, EAEko hiru foru aldundietako ordezkariekin aldiro bilerak egiten dira hainbat arlo jorratzeko, funtsean zerga-ikuskapenarena eta zeharkako zergena. Bi sistemen (Hitzarmena eta Ituna) arduradunen arteko harreman zabalak izaten dira, azterlanak, informazioa eta proposamenak trukatzeko.

Osasun Departamentuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Osasun eta Kontsumo Sailarekin eta Osakidetzarekin dituzten

harremanak elkarlanekoak dira eta hobekuntza komunak bilatzeko elkar ulertze eta konfiantza handiko giroan egiten dira.

Harreman horiei esker bi lankidetzak ildo jorritzen ari dira. Lehenbizikoa lankidetzak hitzarmen bat sinatzea da, zeinaren bidez Osakidetzak osasun arreta emanen baitie Bortzirietako eriei eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatu egiten baitu Osakidetzako osasun langileek pertsona horien historia klinikoan sartu ahal izatea inolako eragozpenik gabe. Hitzarmen hori ezarri, inolako dokumentu-babesik ez duen jarduketara bat taxutuko da.

Bigarren ildoak, berriz, metabolopatien arloko zerbitzua emateko lankidetzak aztertzea izanen da. Proiektu hori aurrekoa bezain garaturik ez badago ere, egungo lankidetzak nabarmentzeko da, EAE-rekin osasun arloan sinatu den hitzarmen bakarra 1988koa dela kontuan hartuta.

Baina, horrez gain, azken urteotan, EAEko izenkideekiko elkar ulertzeari esker, Cabredoko Etengabeko Arreta Gunea elkarlanean ari da EAEko hiru etengabeko arreta gunerekin, lau eremuetako herritarrentzat ospitaleaz kanpoko larrialdi zerbitzua antolatzen. Bortzirietako biztanleentzako osasun arretarekin orain arte gertatu den bezala, gai horietan ere Osakidetzarekiko elkar hartzea erabatekoa da eta isilbidezko itun baten baitan sortzen da lankidetzak, orain arte ez baita inolako araurik ezarri hura erregulatzeko.

Bi erkidegoetako Osasuneko kontseilariak, gainera, oso harreman onak dituzte. Hain zuzen ere laster bilduko dira bi zuzendaritza-taldeak bi departamentuen intereseko gaiak aztertzeko, hala nola farmaziako gastuari eustea, kronikoen estrategia edo berrikuntza. Eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendariak bilera egiten dute Osakidetzako Arreta arloko zuzendariarekin, esate baterako itxarote-zerrendarekin zerikusia duten gaiak ekiteko.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko harremanei dagokienez, adieraz dezakegu horien bidez gauzatu nahi dela Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak eta Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuak 2012ko uztailaren 5ean sinatu zuten hizkuntza arloko lankidetzak hitzarmena. Hitzarmen horretan garatu egiten da Euskal Autonomia Erki-

degoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Protokolo Orokorra, bi erki-degoetako gobernuburuek izenpetutakoa.

Egungo Eusko Jaurlaritzaren eratu zenez geroztik, eta aurtengo maiatzaren 8tik irailaren 19ra bitartean, sei bilera egin dira eta horietan hainbat gai jorratu dira, besteak beste aipatutako hitzarmenaren jarraipena, mapa soziolinguistikorako aldagaien eta tarteen definizioa, Europako sarearen batzarraren lanak, helduei euskara irakasteko on-line baliabideak, materialak eta curriculumak, eta, halaber, euskararen egoerari eta bilakaera sozialari buruzko adierazle sistemak.

Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuari dagokionez, 2013ko maiatzaren 31n Javier Esparza kontseilariak Iruñean lan saioa izan zuen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuorde Bittor Orozekin.

2013ko apirilaren 25ean maila teknikoan parte hartu zen Arabako Biltzar Nagusietan Toki Entitateen Finantzaketari buruzko Foru Araua aldatzeko erabakia lantzean. Arlo horretan Arabako eta Gipuzkoako aldundietako teknikariek ere izaten dira harremanak.

Nekazaritzako elikagaien arloarekin zerikusia duten enpresa publikoen harremanak etengabeak dira; adibidez INTIAk harremanak izaten ditu Neiker-Tecnalia Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundearekin Europako hainbat proiektutan, GANek EAEko hainbat entitatearekin batera jarduten du Europako proiektuetan, eta Lekunberriko Esnekari Erakundeak Lekunberri ezarri zuen laktologia laborategiko instalazioen erabilera lagatzen dio "Asociación lechera de Vacuno y Ovino de las Comunidades del País Vasco y Navarra" (ALVO) elkarteari.

Gizarte gaitan, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen arteko harremanetatik hainbat ekimen, ekintza, elkarrizketa, itun eta programa sortu dira jardunbide hobekuntzarako.

Lankidetzaren arloan harremanak izaten dira Elankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, programak oso antzekoak baitira.

Immigrazio gaitan, berriz, informazioa trukatu da Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin, eta gizarteratzeari dagokionez, Gizarteratze Aktiboko Hirugarren Euskal Plana, besteak beste, laneko dokumentu gisa erabiltzen da Nafarroako 2013-2016 aldirako Gizarteratze Estrategian.

Halaber lankidetzarako konpromisoa dugu Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumo arloko agintariekin, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuarekin alegia. Aldian behingo bilerak egiten ditugu, batera jarduteko bidea eman lezaketen ikuskapen-ekintzak baloratzeko.

Plangintzari dagokionez, gizarte eta osasun arloko gaien EAEko koordinatzailearekin bilerak egiten dira egoitza-zentroetako osasun arretari buruz, eta ikuskapen eta kalitate esparruan, berriz, gizarte zerbitzuak gainbegiratzen izandako esperientziak partekatzen dira.

Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentzia elkarlanean ari da Matia Fundazioarekin, pertsona ardatz duen ereduari buruz, eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera gai hauek lantzen ditu: jardunbide onak sustatzea eta egoitzetan tratamendu etikoa ematea mendekotasuna duten pertsonen, eta profesionalentzako balizko prestakuntza.

Segurtasunaren arloan, berriz, bi protokolo egin dira EAErekin lankidetzan. Aurreko legegintzaldietan sinatu dira eta dagoeneko indarrean jarri dira. Lehenbizikoa hau da: "Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren Departamentuaren eta Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren arteko lankidetzaren protokoloa polizien prestakuntzarako". Hori 1993ko azaroaren 18an izenpetu zen. Bigarrena 2009ko azaroaren 25ean izenpetu zen: "Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren, Justizia eta Barne Departamentuaren eta Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren arteko koordinazio protokoloa neguan errepideak zaintzeko".

Badago, gainera, zuzeneko lankidetzaren Eusko Jaurlaritzarekin babes zibilararen arloan, informazioak eta esperientziak trukatzeko xede duena, eta oso bereziki bideratua dago mugaldeen jarduketarako koordinatzaera.

Su itzaltze eta salbamendu kontuetan ere EAErekin koordinatzen gara, udalen eta foru aldundien menpeko zerbitzuekin hain zuzen ere, lanerako material eta prozedurak bateratzeko eta bateragarri egiteko. Era berean etengabeko lankidetzaren dago Ertzaintzaren eta Foruzaingoaren artean ikerketetan eta, oro har, polizia gaitan.

Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaren indar berezia du sustapenaren arloan. Iragan apirilaren 23an bi gobernuok Estatuari erreklamatu genion berriro jar zezala abian Nafarroaren eta EAEko Y-aren arteko trenbide-loturaren azterketa.

Egun horretan eta Gasteizen izandako bilera batean Zarraluqui kontseilariak eta Oregi sailburuak mahai gainean jarri zituzten lurralde-politika-

ren eta garraioaren arloetako beren proiektu eta estrategiak. Zehazki, garraio-azpiegiturekin, logistikarekin eta urekin zerikusia duten intereseko gaiez aritu ziren. Logistika kontuetan bi arduradunek intermodalitatea aztertu zuten eta bi erkidegoen garapen ekonomikoaren giltzarritzat jo zuten.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, interesa agertu zuen Nafarroak lotura izan dezan EAEko portuekin, jada Noaingo terminal intermodalaren bitartez Bartzelonako portuarekin lotura duen bezala. Horretarako Pasaia eta Bilboko portuen eskaintza aztertzen ari da, Foru Komunitateko merkataritzaren eta industriaren beharrei erantzun ahal diezaion.

Paisaiaren kudeaketa ere bi gobernuetako Sustapen sailek elkarrekin landuko duten beste arlo bat da, sinetsita daudelako plan bateratu eta koordinatuak egin behar direla paisaia-unitate komunetan, mugaz bi aldeen arteko jarraitutasunaren bila.

Horrez gain, Nafarroak eta Euskadik elkarlanean jarraibide tekniko koordinatua taxutuko dute, hirigintzako planen garapena dela-eta Ebroko Ur Konfederazioari txostenak eskatzeko orduan administrazio-izapideak arinago egin daitezken. Bi administrazioek neguan errepideak zaintzeko beren kanpainen gaineko esperientziak ere trukatzeko dituzte, eta aintzat hartzen dute elkarlanean aitzeko bilerak garrantzitsuak izaten direla une bereziki zailetan, ekaitzak arazoak sortzen dituenean bi erkidegoetako errepideetan.

Bestalde, 2013ko martxoan Nafarroako Gobernuak eta Arabako Foru Aldundiak garraioaren arloko beren proiektuen berri eman zioten elkarri. Bi lurraldeak errepidez zeharkatzen dituzten bidaiari-garraioko linea nagusiak izan ziren aztergai: Iruña-Gasteiz, Gasteiz-Lizarra eta Gasteiz-Calahorra lineak.

Eskola-umeen eta bidaiarien garraio zerbitzuen arteko koordinazioan eta neguan errepideak zain-

tzeko protokoloetan ere bi erakundeok informazioa eta esperientziak partekatzen ditugu.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Eusko Jaurlaritzako egungo lehendakariarekin harremanetan jartzeko lehen ahalegina egin zuen 2012ko abenduaren 18an, Iñigo Urkullu jaunak kargua hartu eta berehala.

Lehendakari honek jada iragan ekainaren 19an Parlamentuaren aurrean adierazi zuen bezala, Eusko Jaurlaritzako lehendakari berriari dei egin nion zorionak emateko eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen interesekoak diren gaiei buruzko elkarriketa adiskidetsu eta argia proposatu nahian. Urkullu jaunak, ordea, ez zion jaramonik egin deiari, eta gaur arte ez du erantzun.

Iragan uztailaren 2an lehendakari honek gutuna igorri zion Urkullu lehendakariari, azaroaren seian eta zazpian Pirinioetako Lan Erkidegoaren Kontseiluak Iruñean eginen duen osoko bilkurako bi jardunaldietan parte hartzera gonbidatzeko.

Gutunean hauxe esan nion Urkullu jaunari: “garrantzitsua iruditzen zait guztiok elkartu ahal izatea eta batera finkatzea gure erakundeak hurrengo urteetan jarraitu beharreko estrategia, eta guztiok biltzea PLEko lehendakaritza Mugaz Gaiendiko Lankidetzarako Andorrako Erakundeari pasatzeko ekitaldian”.

Joan zen urriaren zortzian Eusko Jaurlaritzako lehendakariak honela erantzun zion gutun horri: “agenda dela eta, azaroaren 7ko Lehendakarien Bilerara soilik joan ahal izanen naiz, betiere Eusko Legebiltzarrak egun berean eginen duen osoko bilkura arruntak bidaia eragozten ez badit”.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko urriaren 23an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Yolanda Barcina Angulo

Galdera, Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroak Bruselan duen Ordezkaritzari buruz (PES-145). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakoen kontseilariak:

1. Nafarroako Gobernuak Ordezkaritzaren etorkizunaz dituen asmoei dagokienez, esan behar da gogoeta prozesuan murgilduta dagoela. Prozesu horretan oso kontuan hartzen ari da Bruselan egoteak balio handia duela, Europak finantzaketa lortzeko eta proiektuetan parte hartzeko eskaintzen dizkigun aukerak bertatik bertara ezagutzen ditugulako. Gogoeta prozesu horren barruan, Ordezkaritzaren buru izanen den pertsonak bete beharreko eginkizuna ere zehaztu behar da, eta gure Gobernuaren premia eta nahiei egokitutako lanbide profila marraztu.

2. Ordezkaritzari atxikitako langileei dagokienez, iragan irailaren 16ra arte ordezkaritza batek lan egiten zuen bulegoko arduradun gisa, eta Nafarroako Gobernuak funtzionario batek laguntzen zion administrazio lanetan. Gaur egun ordezkaritzako kide izaten jarraitzen du Ana García Figueroak, Bruselako lanpostuari atxikitako administrariak.

3. 2013rako luzatu den 2012. urteko aurrekontuan 93.665 euroko diru kopuru osoa ageri da; horietatik 72.065 euro lokalak alokatzeko erabili

behar dira eta 21.600 euro Ordezkaritzaren funtzionamendu gastuetarako.

Gogora ekarri behar da 2012ko azaroaren 30era arte Nafarroako Gobernuak bulego bat alokatuta zeukala Bruselako Avenue des Arts kalean.

Jasaten ari garen krisi egoera dela eta, Nafarroako Gobernuak ongi hartu zuen Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren eskaintza: bulego hori misio diplomatikoen lokaletan koka zedin, baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko.

Hartara, 2012ko urriaren 24an Nafarroako Gobernuak Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzarako protokolo orokorra onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritza Espainiak Europar Batasunean duen ordezkaritza iraunkorraren (REPER) lokaletan koka zedin.

2013ko urtarrilaren 14an hitzarmen berezia sinatu zen ministerio horrekin, lankidetzarako modua eta baldintzak zehazten dituen.

Gaur egun, hitzarmen berezi horren bitartez, Nafarroako Gobernuak bulego bat dauka REPERen Bruselako bulegoetan, eta langile laguntzaileek erabiltzen duten espazio gardenaren zati bat erabiltzen du. Hau da bulegoaren helbidea: Boulevard du Régent, 52 – 5th floor ; B-1000 Brussels.

Aipatutako hitzarmenean Nafarroako Gobernuak agindu du REPERi urtean 14.000 bat euro ordainduko dizkiola lekuaren eta zerbitzu orokorren lagapenaren truke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakoen kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruz (PES-138). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Egia da 2013ko ekitaldi honetarako luzatu den Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legeak ez duela gehieneko arrisku bizirik finkatzen Gobernuari mugatzeko abalak emateko ahalmena, eta horretan ez zaio erabat lotzen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren

4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan xedatutakoari. Hala ere, muga bat ezartzen du, baina bestelakoa, zuzenean ezartzen baitu eman daitezkeen abalen gehieneko zenbatekoa. Gehieneko zenbateko hori ezartzeko beti hartu da kontuan gehieneko arrisku bizia, eta inoiz ez da gainditu. Beraz, bermaturik egon da apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan xedatutakoa betetzea.

Edonola ere, nahiz eta kontuan hartu behar den Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea ez dela urtero ematen diren Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko foru legeak baino goragokoa eta hura onesteko ez dagoela gehien-go indartuaren beharrik, eta, beraz, Parlamentuak, legegintzarako ahalmena erabiliz, geroko legeen bidez aurreko edozein lege alda dezakeela, Gobernuaren asmoa da Aurrekontuei buruzko hurrengo foru lege proiektua bidaltzen duenean hertsiki betetzea aipatutako manuan xedatutakoa, hots, gehieneko arrisku bizia finkatuz mugatzea abalak emateko aukera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, sektore soziosanitarioko langileak gaitasun profesionalak egiaztatzeko prozesuan sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, sektore soziosanitarioko langileak gaitasun profesionalak egiaztatzeko prozesuan sartzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du sektore soziosanitarioko langileak gaitasun profesionalak egiaztatzeko prozesuan sartzeari buruz (8-13/PES-00141). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Nafarroako antolamendu juridikoan ez dago inolako araudi edo xedapenik egiaztapen prozesu hori amaitzeko epe zehatzik ezartzen duenik.

Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren erabaki batean soilik dago jasorik epe hori. Autonomiaren aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zentro eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko egiaztapen-irizpide orokorreari buruzko erabakia da, 2008ko azaroaren 27koa, eta argitara eman zen Gizarte Politikarako, Familiatarako eta Mendekotasunaren eta Ezgaitasunaren Arretarako Estatu Idazkaritzaren 2008ko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez.

Xedapen hori Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu ahal izateko gure foru antolamendu juridikoan egokitu behar da, eta oraindik ez da halakorik egin.

Gizarte Politiketako Saila gaur egun izapide-tzen ari den foru dekretu baten bidez eguneratu egin nahi dira gizarte zerbitzuen arloko baimenei buruzko egungo arauak eta baimen horiek lor-

tzeko eskatzen diren baldintza materialak eta pertsonalak, gizarte zerbitzuak eman ahal izateko bete behar diren baldintzak, hain zuzen. Dekretu horretan jaso ahal izanen dira hizpide dugun gaia eta antzeko beste batzuk.

Aurrean esandakoa gorabehera, esperientziaren bidezko lanbide-kualifikazioak egiaztatzeko deialdiak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak dira.

Esperientziaren bidezko lanbide-kualifikazioen egiaztapen hori oraintsuko prozesua da. Nafarroako Gobernua horrelako prozesuak sustatzen ari da. Sektore soziosanitarioa izan da egiaztapen prozesu horietan arreta gehien jaso duena. Izan ere sektore horri 630 lanpostu eskaini zaizkio, hau da, eskainitako lanpostu guztietatik (1.135) berarentzat izan dira % 55.

Sektore horretan egiaztapen prozedura 2011. urtean hasi zen, 60 lanposturen deialdia egin zenean. Deialdi gehiago egin dira 2012an eta 2013an, guztira 613 lanpostu bete arte.

170 teknikari ari dira parte hartzen informazio eta orientazio saioetan, aholkularitza eta ebaluazio batzordeetan.

Ez dago geroko deialdiei buruzko aurreikuspen zehatzik. 2014rako Aurrekontuen Aurreproiektuak xede horretarako kontusailak ditu aipatutako departamentuetan, baina Parlamentuan onetsi gabe dago. Gainera, orain arte egindako deialdi guztiak Hezkuntza Ministerioaren eta Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren funtsekin finantzatu dira, eta erakunde horiek oraingoz ez dute adierazi funtsak berrituko dituztenik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez